



Ibarra Herri Hezitzailea elkargunean parte hartzen ari diren eragileetako ordezkariak. ATARIA

Herri hezitzaileagoa izatea jomugan

Ibarrako hezkuntza komunitatea saretzeko eta herri moduan, hezkuntzarako estrategia bat adosteko, herriko hainbat eragile elkarlanean ari dira; herritar oro gonbidatu dute parte hartzera // 6

Tolosako Udal Txistulari Bandakoen goiz deian jazotakoa

Joxe Mari Gorrotxategiren oroimenezko kalejira jotzen ari zirela txantxangorri bat azaldu zen, eta txistuaren gainean jarri zuten // 3



Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

«Txapelketa Nagusira pasako diren Gipuzkoako bertsolariak zein diren jakingo da Tolosako saioan»

BEÑAT AZALDEGI
ANTOLATZAILEA

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko kideak balantze baikorra egin du Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseaz; irailaren 14an hasiko da Gipuzkoako Txapelketa // 4

Saralegi eta Regillaga judokak txapeldunorde

Nage No Kata modalitateko Espainiako Txapelketan Judo Klub Tolosako hiru bikotek hartu dute parte // 7

Laskorain eta Tolosala talde batean batu dira

Areto futboleko 3. mailako bi taldeek bakarra osatu dute eta Tolosala izenarekin lehiatuko dira // 7

Tolosako Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzua indartuko du

Ekaineko osoko bilkuran zerbitzurako aurrekontua %40 handitzea onartu dute aho batez; ordu kopurua igotzea ere adostu dute // 2

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzua indartuko du. Lizitazioa martxan jartzeko pleguak onartu dituzte udalbatzako zinegotziek ekaineko osoko bilkuran, aho batez. Hiru urteko iraupena izango du kontratu berriak, eta udalak diru ekarpena handituko du: %40 gehiago bideratuko du -500.000 euro-. Urteko aurrekontua 1.766.107 eurokoa izango da, eta hiru urte-etako balio zenbatetsia, 6,6 milioi eurokoa. Zerbitzuaren ordu kopurua ere igoko da, 44.000tik 55.000ora. Modu horretara, erabiltzaile gehiagorengana iritsi edo denbora gehiagoz egon ahal izango dute langileek.

Langileek eta gaur egun zerbitzua kudeatzen duen enpresak adostasuna lortu berri dute, lan hitzarmena sinatzeko. Horri esker, udalak baldintzak jarri ahal izan ditu hitzarmen horretan langileen oinarritzko soldata %28 igo dadin. «Funtsezko zerbitzua da etxez etxeko laguntzarena, egoera zaurgarrian edo mende-kotasun egoeran dauden pertsona eta horien senide askorentzat. 160 erabiltzaile inguru ditu eta honakoa urrats garrantzitsua izango da etorkizunera begira zerbitzua bera sendotzeko», adierazi zuen Kristina Pelaez udal gobernuko zinegotziak.

Bestetik, kale garbiketako zerbitzu-kontratuaren espedienteak onartu du udalbatzak, erabateko adostasunez. Behin lizitazioa martxan egonda, kontratazio-organok azterketa ekonomikoan akats bat antzeman zuen, hain justu, makineriaren amortizazioa behar bezala ez zela sartu. Hori berrikusi eta administrazio-pleguak zuzendu ondoren, berriro lizitazioa abiatzea onartu du udalbatzak, aho batez. Bi urterako kontratua da, beste bi urtez, urtez urte, luzatzeko aukerarekin. Guztira, 7,8 milioi euro bideratuko ditu udalak.

KIROL INSTALAZIOEN AFERA

Udal kirol instalazioen zerbitzu-kontratuaren lizitazioa ere martxan jarri du udalbatzak, pleguetan egin beharreko aldaketak egin ondoren. Kirol instalazioen kasuan, KEAOk oinarrien aurka jarritako helegiteen eabazpena aintzat hartuta egin dira aldaketak. Kontratu berria trantsiziorako izango da: bi urterako iraupena izango du, eta urteko aurrekontua 2.284.583 eurokoa izango da. Aurreko kasuan bezala, kontratua baldintzatua dago gaur egungo kontratuaren behin betiko suntsiarazpenarekin.



Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak, pasa den ekainaren 13an, hitzarmen berria sinatu ondoren. ELA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartuko du udalak

Hiru zerbitzu-kontraturen espedienteak onartu eta horien lizitazio prozesuak martxan jartzea erabaki du Tolosako udalbatzak ekaineko osoko bilkuran

Erabakia gehiengoz onartu zuten, EAJk eta PSE-EEK abstentziora jo zutelako. Oposizioak zalantzan jarri zuen lizitazioa presakotzat jotzea, zerbitzua indarrean dagoelako eta instalazioak irekita daudelako. «Egia da prozesu administratiboa laburtzen duela, baina enpresek denbora gutxiago dute euren proposamenak eraiki eta aurkezteko. Badaude premiazko atentzioa behar duten bestelako gaiak, kontratuak behartzen dituenak, BPXport enpresak gauzatu gabeko inbertsioak eta kudeatzailearen figuraren ordezkatzeari, besteak beste. Jakin nahiko nuke zenbat denbora daramagun Usabalen kudeatzaileak gabe», esan zuen Xarles Iturbe EAJko zinegotziak. «Esleipena geroz eta azkarrago egin, orduan eta lehenago konponduko dira arazoak», erantzun zien Pelaezek.

Bestetik, Iturbek esan zuen Tolosarentzat «emankorra» izan den kudeaketa eredu bat «hankaz gora» jarriko duela zerbitzu-

kontratuak. «Emakida formatua oso emankorra izan da urte luzetan, eta kudeaketa eredu aldaketak ez dakigu, zehazki, zer arazo konponduko duen», gaineratu zuen. Joxe Mari Villanueva PSE-EEKo zinegotziak ere ez du begi onez ikusten aldaketa: «Erantzukizuna hiru eragileren artean banatzen da: langileak, enpresa eta udal gobernuak. Prozesu honen amaieran jakingo dugu nola banatzen diren erantzukizun horiek». Pelaezek erantzun zien lehengo kudeaketa ereduak ez zela egokiena: «Udalak zerbitzuaren

kontrol guztia galdu du eta ezin izan du eskua sartu arazoak sortu direnean».

EUSKARA PLANA 2024-2027

Tolosako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2024-2027 Plana eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartu ditu udalbatzak, biak ala biak, aho batez. Planak mugari izan nahi du, errealitatea hobeto eza-gutu eta hobetzekoak identifikatu eta gero, ahulguneak indartzeko. Horretarako, metodologia aldatu da. Udaleko langileei galdetegi bat bidali zaie, argazki osatua jasotzeko, eta %80ak baino gehiagok erantzun du.

Launa indargune eta ahulgune identifikatu ditu diagnostikoa. Komunikazioan, herritarrekiko harremanetan, langileen eta ordezkari politikoen hizkuntza-gaitasunean eta udal barruko harremanetan euskararen erabilera sendoa dela ondorioztatu du. Aldiz, hobetzeko artean daude, hizkuntzaren kudea-

keta, lidergoa, plan eta irizpideen barne komunikazio hobea edota udal kontratu, emakida eta hitzarmenetan sartzen diren hizkuntza-klausulen jarraipena.

Onartu berri den planak, besteak beste, alor horiek hobetzea izango du helburu, euskararen erabilera urrats bat emateko. Norabide horretan laguntzeko, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen proposamena ere onartu du udalbatzak. Printzipio gidariak, eta kudeaketarako, zerbitzurako eta lanerako hizkuntza irizpideak finkatzen ditu dokumentuak, baita komunikazio korporatiboko, ekitaldi publiko-etako eta itzulpen eta zuzenketa-irizpideak ere.

47 ERAIKINEN AZTERKETA

Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-katalogoa berritzeko lehen urratsa ere eman du udalak, udal gobernuaren babesarekin. Maiztean behin betikoz onartu zuten San Frantzisko ibiltokiko 37. zenbakian dagoen Villa Sagrado Corazon eraikina babestea. Bada, orain interes arkitektonikoa duten herriko gainerako txalet, bizitegi-eraikin eta eraikin instituzionalak katalogoan barneratzeko egokitasunaren azterketa jarriko dute martxan.

Udal arkitektoek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egingako proposamenak aintzat hartuta, 47 eraikin aztertuko dituzte: txalet tipologiako 19 eraikin -besteak beste, Arkaute, Izaskun, Villa Maria, Ibai-gain, Itxaropena edo Oriaburu etxeak-, bizitegi-eraikin kolektiboko 25 eta hiru eraikin instituzional. Horietako bakoitzaren azterketa egin eta dagokion fitxa osatuko du udalak, eraikinak berak edota bere elementuek zein babes-maila duten ikusteko. Bien bitartean, eraikin horiek osorik eraisteko lizentziak, edota fatxadei eragiten dieten lanetarako baimenak eten egingo dituzte, gehienez ere urtebetez, hau da, katalogoa aldatzeko hasierako onespeneraren erabakia hartu arte.

Oposizioko alderdiek abstentziora jo zuten. «Ondorio negatiboak eragin ditzakeen prozesu bati ekin diogu. Katalogo honek tolosarrek etxebizitzak izateko duten eskubidea erraztu edo zailtzen du?», esan zuen Villanuevak. «Katalogoa eguneratzeak arazoak sortuko ditu udalaren eta jabekide sustatzaileen artean. Neurtu dituzue sortu ditzakeen talka urbanistiko eta juridikoak? Eta ondorio ekonomikoak?», gaineratu zuen Iturbek.

Udal kirol instalazioen zerbitzu-kontratuaren lizitazioa martxan jarri dute, pleguetan aldaketak egin eta gero

2024-2027 eperako euskararen aldeko plan bat ere onartu du udalak, erabileran urrats bat emateko

Tolosako txistulariak eta Xaxu txantxangorria

Igandero Tolosako Udal Txistulari Bandako kideek Alde Zaharrean zortziko batez abiatzen dute goiz deia, eta jarraian eta, txandaka, auzotik auzora ibili ohi dira

Jose Ignazio Ansorena Miner

2024ko otsailaren 18an, Amarotz auzoan, *Xaxu konfiterua*, Joxe Mari Gorrotxategi zenaren eskariz gozogile zahar haren oroimenezko kalejira jotzen ari zirela, hara non ikusi duten lurrean geldirik txantxangorri bat. Hotzez edo gaixorik dagoen itxura du. Gelditu egin dira. Ion Garmendia zuzendaria hurreratu zaio, eskuan hartu du, hark utzi hartzen, eta txistuaren gainean kokatu du. Huraxe da argazki honen jasotzen duen unea.

Hori jakitean zalantza etorri zait: ez al zen Joxe Mari bera izango txantxangorri eran txistulariei agertu zitzaien? Agian gogorarazi nahi zien ekainaren 11n bost urte beteko zirela hil zenetik, oraindik ez duela bere Tolosa ahaztu eta eskertzen diela *Xaxu konfiterua* biribilketa jotzea. Joxe Mari benetako txantxangorria baitzen.

Txistularioi ere askotan konparatu zaigu txoriekin. Carmelo Bernaola konpositore handiak zioen txistu hotsa dela, txorienarekin batera, Euskal Herriko paisaia musikala. Eta maiz egokitu zaizkigu *txori txorrotxalari* eta moduko deiturak.

Gure erreperitorioan doinu askok dituzte txorien aipamenak goiburuan. Tradiziozko dantzetan, *Txoriarena*, *Biligarroarena*, *Añoar handi*... Eta kontzertuen erreperitorioan, *Birigarroa*, *Txoriak*, *Txori kantak*... Eta Roberto Garate, Amasako txistulari elektriko deitzen zioten adiskidearen *Imitación a pájaros* famatua, non hontzatik hasita, karnaba, kuku edo zozotik pasa eta istingorarekin amai zezakeen. Baina txantxangorriaren aipamenik ia ez dago. Nik dakidala, Aita Hilario Olazararen *Txoriak* obraren hirugarren atala besterik ez. Eta hor amaitzen da txistulari eta txantxangorriaren arteko harreman musikala.

JOSE MARI USANDIZAGA

Bada beste obratxo bat, *Chan-Changorriya* (Ecos de Vasconia, Echeverria eta Guimon. A. Díaz y Cia. Donostia, 1912), Jose Mari Usandizaga musikari handiak sortutakoa eta makina bat aldiz jo izan duguna Donostiako txistulariok. Baina, kantu eta piano-rako sortua da eta neuk egokitu nuen txistulari talderako. Usandizagaren kanta horrek Manuel Arreseren poema bat du oinarri.

Hitzak jarri zituen Manuel



Txantxangorria txistuaren gainean, otsailaren 18ko goiz deian. ATARIA

Arrese izen hori nonbait Manuel Joaquín Arrese Ibargureni dago, Donostian 1862an jaioa eta Oñatiko artxiboan gordetik dagoen *Zure begi* izeneko beste poematxo baten egilea. Usandizaga familiako adiskidea omen zen. Ez du ematen funts handiko besterik egin zuenik. Baina tanta txiki horrek balio izan dio izena eta lana musikaren historian kokatzeko. Usandizagaren abesti hori abiapuntu harturik eta *Pin, pin, txoria* izeneko herri kanta atxikirik eta izenburu horrekin, Xabier Telleria tolosarraren ekarpenaz, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen *Barre egin* diskoan grabatu genuen.

LITERATURA

Euskal literaturan, aldiz, ugariak dira txantxangorriari eskainitako aipamenak. Salvador Zapi-

rain Ataño (1912-2000), idazle kaputxino erreteriarrek esate baterako, *Txantxangorri kantaria* izeneko liburu ederrean (Auspoa Liburutegia, 137-138. Tolosa, 1979), utzi zuen aipamenik. Bertsoak ere asko daude gure txoritxoaren inguruan. Tolosarrei lehentasuna ematearren Emeterio Arreseren (1869-1954) *Txantxangorriya* saila ekarri nahi dut gogora.

Tolosako udal txistulariak eura ere txantxangorri lagunak direnez, haiei eskaintzen diet artikulua hau. Izan gaitezen denok, gure Joxe Mari bezala, txantxangorri.



Artikulu osoa, artikuluan aipatutako abesti eta bertsoak barne
Ataria.eus-en

Elena Arreseren lanak ikus daitezke Kordoban

Erredakzioa

Tolosako Elena Arrese sortzaileak *Relatos silentes* erakusketa jarri du Kordobako (Andaluzia, Espainia) La Inaudita espazioan. Uztailearen 15era arte egongo da ikusgai, eta laster horietako lan batzuk hiri horretako unibertsitatean ere ikusi ahal izango dira. Izan ere, lankidetzaz berezia itxi du Kordobako unibertsitatearekin eta artista gonbidatua izango da bertan, irailetik urrira bitarte.

ERAKUSKETA

Relatos silentes erakusketan 10 margolan bildu ditu. Gizakia gaia lantzen du bertan eta teknika mistoan egin ditu. Emakumeen erretratu eta irudi anonimoak direla esan du, eta ikusizko narrazioak birsortzen dituztela, figurazioaren eta abstrakzioaren arteko nahasketa moduko baten bidez, pertsonen esentzia eta une iragankorrak atzemanez. «Arpegirik gabeko erretratuak dira, eta horiekin interpretazio desberdinak sortu eta emozio desberdinak eragin nahi ditut», esan du Arresek.

«Erretratua esperimentaziorako eta nire adierazpen berezira-ko eremu emankor bihurtzen da, horrela erretratutako gizabanakoaren interpretazio zabala goa eta subjektiboagoa ahalbidetuz. Ikusleak bere esperientziak eta emozioak proiektatu ditzake. Eszena bizi ez dute inor bereziki hilezkortu nahi, gizabanakoa oro har baizik. Esperientzia unibertsal bat sortzen saiatzen naiz, edozein ikuslerengan eragina izan dezan», gaineratu du.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Irailaren 14an hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Unai Mendizabal, Beñat Iguaran, Iñigo Gorostarzu eta Oihana Iguaran bertsolariek parte hartuko dute; azaroaren 3ko final-laurdena Tolosan izango da

Erredakzioa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Urretxun hasiko da irailaren 14an, eta Donostian amaitu, abenduaren 15ean izango den finalean. 16 saio izango dira orotara, eta 48 bertsolari ariko dira kantuan. 48 bertsolarietatik 34 bertsolarik udaberrian jokatu zen Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean eskuratu zuten txapelketarako txartela. Gainontzeko 14 bertsolariek duela bost urteko txapelketan eskuratu zuten txartela. Bertsolariez gain, 16 gai-jartzaile eta 15 epaile eta laguntzaile ugari izango dira txapelketan lanean.



«Askok lagundu digu jendeak eta saioetako parte aktiboena izan da askotan»

BEÑAT AZALDEGI LAKUNTZA ANTOLATZAILEA

Imanol Artola 'Felix' Tolosa

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko sustapen arduraduna da Beñat Azaldegilakuntza (Tolosa, 1994) eta buru-belarri ibili da orain arte Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea antolatzen. Balorazio positiboa egin du.

Tolosaldeko lau bertsolari ariko dira bertsotan udazkenetik aurrera: Unai Mendizabal Jauregi, Beñat Iguaran Amondarain, Iñigo Gorostarzu Etxebeste Etxorde eta Oihana Iguaran Barandiaran.

Guztira 16 saiok osatuko dute txapelketa, hiru fasek eta finalak: zazpi final-zortziren, bost final-laurden, hiru finalaurreko eta finala jokatu dira. Lehen saioa Urretxun izango da, irailaren 14an, Labeaga aretoan. Tolosaldean ere izango da saiorik; hain justu, azken final-laurdena, azaroaren 3koa Tolosan izango da. Leidor aretoan izango da, 17:00etan hasita, eta Igotz Alkor-

ta izango da bertako gai-jartzaile.

Bost urteko hutsunearen ostean dator txapelketa, urteurren berezian. Izan ere, Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean bezala, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ere Gipuzkoako lehenbertso eskolaren 50. urteurrena izango dute gogoan. Hala, udaberriko faserako sortu zuen irudiari hirugarren dimentsio bat eman dio Unai Gaztelumendik.

Saio guztietako sarrerak salgai daude *Bertsosarrerak.eus* webgunean. Ohi bezala, Bertsozale Elkarteko bazkideek eta gazteek prezio berezia izango dute sarretan.

hartzeak aukera ematen zигun jende askorekin egoteko.

Afari-meriendak izan dira beste nobedadeetako bat.

Bai. Bertsolaritzaren ekosistema hori guztia elikatuko zuen ekin-tza bat nahi genuen eta bete-betean asmatu dugula esango nuke. Aurretik ere egin izan dira horrelakoak, batez ere umee-kin, baina orain arte ez dugu helduekin probatu. Tematu ginen, gainera, saioa egiten zen tokian bertan antolatzen afari-merienda. Sortu dira elkarrizketa oso interesgarriak eta antolatzaileok entzuleekin egoteko aukera izan dugu. Baliagarria izan zaigu euren iritzia jasotzeko.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara sailkatzeko galbaha ere mailaka egin nahi izan duzue.

Bai, horrela da. Lehenengo itzulitik 26 izan ziren kanporatuak eta bigarren fasea jokatu zuten 48 horiek bigarren saio bat jokatu eta 14 geratu dira kanpoan. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara 74tik 34 sailkatu dira, beraz. Lehen itzulitik bigarrenera pasatzeko puntuazio jakin bat lortu behar izateak ukitu berezia



Gipuzkoa Bertsotan fasean aritu zen Amasako Beñat Iguaran. ATARIA

eman dio sailkapen faseari eta saltsa pixka bat sortu du.

Lehen itzulian saioak ostegun eta ostiraletan izan dira. Konforme zaudete hartutako erabakiarekin?

Bai, erabat. Ez da guk asmatutakoa Bizkaiko Udaberria Bertsotan ekimenetik jaso genuen ideia eta ikusi dugu hemen ere funtzionatu duela. 20 saio antolatze-ko 20 asteburu hartu behar izatea ez da oso bideragarria bertsolaritzaren ekosistema honetan. Asteburutik kanpo, ostegun eta ostiraletan antolatu ditugu lehen itzuliko saioak eta harrituta geratu gara erantzunarekin. Uste baino jende gehiago gerturatu da.

Zer esango zenuke txapelketan entzun den bertso mailaz?

Niri pertsonalki sekulako maila egon dela iruditzen zait. Fin aritu behar izan dute bertsolariek, bi saio on egin behar izan dituzte txapelketarako txartela lortzeko. Bertsolari hauetako askok oso saio gutxi egiten dituzte urtean zehar, eta hala ere, izugarrizko tenplea erakutsi dute. Miresmena eragiten didate.

Alde txarren bat nabarmen-

duko zenuke Gipuzkoa Bertsotan?

Sarrerak aurrez jarri ditugu salgai *online* eta zenbait saiotan bertako jendea kanpoan geratu da, zoritxarrez. Guretzako dena saltzea pozgarria da baina jende batentzat pena da kanpoan gertatzea.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irailaren 14an hasiko da eta dagoeneko jarri dituzue salgai sarrerak.

Bai, jendeak arnas luzeko planak egiten ditu eta joan den astean txapelketa aurkeztu eta momentuan jarri genituen sarrerak salgai. Gurean ez dut uste *sold out* fenomeno gertatuko denik, baina gertatuko balitz ez litzateke seinale txarra izango.

Tolosan azaroaren 3an jokatuko da azken final-laurdena. Zergatik Leidorren?

ATARIK urtero antolatzen duen hitzorduak erakusten du areto horretan saio ederrak ateratzen direla. Plaza garrantzitsua izango da Tolosakoa. Final-laurdenetako azken saioa izango da eta bertan jakingo da 2026ko Bertsolari Txapelketa Nagusian zein izango diren Gipuzkoako ordezkariak.



San Martin auzoko jolaslekuko zabuak, berrituta. AMEZKETAKO UDALA

San Martin auzoko eta herriaren erdialdeko parkeak egokitu dituzte

San Martingo jolaslekua auzolanean egokitu dute hainbat herritarrek eta horretarako materiala eman die udalak; herriaren erdialdeko obra «epe motzean» bukatuko dute

Aitor Arroyo Askarai
Amezketak

Herriko bi parketan berrikuntza eta egokitze lanak egin dituzte Amezketan. Batetik, joan den astean bukatu zituzten San Martin auzoko parkeko konpontze lanak. Udaletik azaldu dutenez, azken urteetan hango jolas-parkea «egoera kaxkarrean» egon da eta hainbat herritarrek konponketa lanak egin dituzte bertan: hautsita zeuden elementuak berritu eta «egoera desegokian» zeudenak konpondu dituzte.

Behin konponketa horiek eginda, herriko Gaztelekuko nerabeek elementuak bernizatu eta hainbat koloretan margotu dituzte, dinamizatzailaren eta herri-langileen laguntzarekin.

Elkarlanean aritu dira Amezketako Udala eta herritarrek,

hain zuzen, materiala eman die udalak eta auzolana antolatu dute herritarrek. Mikel Arteaga alkateak uste du «txalotzekoa» dela herritarrek zein nerabeek egin duten lana.

Alkateak azaldu duenez, diru kopuru bat zuten gordeta parkea berritzeko, baina auzolanaren proposamenarekin ez dute erabiltzeko beharrik izan: «Auzolanaren aukera proposatu zigutenean gustu handiz hartu genuen eta nahiago izan genuen, inongo zalantzarik gabe, modu horretan berritu, parke berri bat jarri baino». Arteagak argitu du «balio handiagoa» ematen diotela lana modu horretan egiteari.

MARTXAN DIREN LANAK

Joan den urtean estali zuten herriaren erdiguneko parkea, eta estalkia jartzerakoan jolaslekuko

elementuak lekuz mugitu zituzten. Ondorioz, parkearen forma aldatu zen eta, bide beretik, baita lurzorua ere. Hori horrela, aurretik jolastokiaren azpian zegoen lurra agerian geratu zen, eta egoera «kaskar samarrean» zegoen: «Lurra zakar samarra zen, zulo batzuk zituen eta egoera txar samarrean zegoen».

Zorua konpontzeko lanak egin ari dira orain, eta aukera baliatuko dute uraren bidea ere aldatzeko: «Urak hobeto bideratu nahi ditugu, eta bi helburu horiek betetzeko egingo dituzte lanak». Ura bideratzeko zanga egin, sareta jarri eta guztia asfaltatzearekin bukatuko dute. Aste honetan edo hurrengoan bukatzea aurreikusten dute eta lanek, guztira, 8.000 euro inguruko kostua izango dute.



Joan den urteko jaietako txupinazoaren une bat. J. MIRANDA

Jaien aurreko antolakuntzan, azken egunak dituzte Alegian

Bihar izango da jaietako kamiseta eskatzeko azken eguna; eta dagoeneko eman daiteke izena erretiratuen hamaiketakoan eta haurren bazkarian

Erredakzioa Alegia

Datorren astean hasiko dira Alegiako jaiak, eta horien antolakuntzan azken egunak dituzte alegiarrek. Alegiako festa batzordeak kamisetak egin ditu festetarako, eta bihar, 13:00ean, bukatuko da eskatzeko epea. Kamiseta nahi duenak kultur etxean eskatu beharko du, eta enkargua egitearekin batera adierazi beharko du neurria, eta txartelarekin ordaindu prezioa: 8 euro. Prestatzen dituztenean jakinaraziko dute eta jasotzera joan beharko dute herritarrek.

Bestalde, parte hartu nahi badute festetako zenbait jardueretan izena eman beharko dute adinekoek eta haurrek. Horieta bat da sokamuturra. Udaletik ikuskizuna udaletxeko balkoitik ikusteko aukera zabaldu dute, eta lekua mugatua dela-eta, zozketa antolatu dute. LH-1etik LH-6ra bitarteko haurrek eman ahal izango dute izena, eta 70 urtetik

gorako adinekoek. Bestalde udaletik ohartarazi dute balkoian zutik egon beharko dela, eta ezingo dela gurpildun aulkian bertaratu.

HAURRAK ETA ERRETIRATUAK

Uztailaren 15ean, Karmen egunaren bezperan, erretiratuen hamaiketako eta haurren zein nerabeen bazkaria egingo dute; eta bietan ala bietan, aurretik eman behar da izena. Egun horretan, erretiratuek Txintxarriak martxan ekimenekoen saioa izango dute aurretik, eta hamaiketakoan izena eman dezakete udaleko web orrialdean zein kultur etxean; uztailaren 7a izango dute horretarako azken eguna.

Haurren eta nerabeen bazkariarako Alegiako Udalaren web orrialdean eman behar da izena, eta hori egitearekin batera adierazi beharko dute ea alergiarik duten edo ez. LH-1etik DBH-4ra bitarteko gazteei dago bideratuta bazkaria.



Ibarrako San Bartolome plaza inguruko ikuspegia. JON MIRANDA

Ibarrako eragileak elkarlanerako eta koordinaziorako batu dira

Ibarra Herri Hezitzailea sortu dute herriko eragile ugari, Ibarrako hezkuntza komunitatea sartzeko eta herri moduan, hezkuntzarako estrategia bat adosteko

Leyre Carrasco

Duela zenbait hilabete Ibarrako hainbat eragile modu koordinatu batean elkarlanean hasi ziren. Urtarrilean ekin zioten lanari eta ekainera bitarte, hezkuntza, bere modu zabalean ulertuta, herri mailako elkargunean artikulatzeko eta ezaugarritzeko lan saio burutu zituzten.

Julen Urrestarazu Ibarrako Udaleko hezkuntza eta gazteria zinegotziak azaldu bezala, bilera horien asmoa eragile guztiak dinamika horren parte sentitzea izan zen: «bertan beharrezkoa ikusten genuen denok nolako Ibarra nahi genuen zehaztea eta inertziak sortzen joatea».

Horren emaitza izan da Ibarra Herri Hezitzailea elkargunea. Honela, Ibarra hezitzaile batera-

ko zorua adostu eta, hezkuntza eragile ezberdinen arteko estrategia partekatu bat eraiki dute, «Ibarrako hezkuntza komunitatea sartzeko eta herri moduan, hezkuntzarako estrategia bat adosteko».

Lantaldearen lehen pausoa herriko hezkuntza arloaren argazki bat egitea izan da, «indarguneak eta ahulguneak identifikatuz, eta erronkak lehenetsiz». Horregatik, Ibarra herri hezitzaile moduan sustatu nahi dituen balio hezitzaileak adostu dituzte. Hain zuzen, anitza, berdintasunean hezten duena eta feminista, zaintzailea eta jasangarria, parte hartzailea, euskalduna eta herri identitatea eta bertakotasuna sustatzen duena izatea nahi dute Ibarra, besteak beste.

AURRERA BEGIRAKO ASMOAK

Ibarrako Udalak eta Oinherri herri hezitzaileen sareak elkarlanerako duten hitzarmenaren baitatik sortu zen abiapuntua, eta Maite Azpiazu Oinherriko hezitzailea izan dute lanketan bide-lagun. «Legealdia hasi zenean hezkuntza aldetik behar ezberdinak zeudela ikusi genuen, hau da, egunerokotasunean gauza negatibo asko nabari genituen eta, gainera, gizarte mailan erronka horiei baliabiderik jar-tzen ez zaienez, erantzuna ematen hasi nahi genuen Ibaratik, poliki-poliki, gauza txikiak egin-ez», azaldu du Urrestarazuk.

Honela, herriko eragile ugari elkartu ziren, eta arlo eta helburu desberdinetako kideak izanagatik, askotan «kezka, ezin eta poz» berdina dituztela ikusi

dute. Orain, lanketa horretan aurrera begira jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Momentuz eragile hauek osatzen dute lantaldea: Udala, Uzturpe Ikastola, osasun etxea, Nura Gizarte hezitzaileak, Gaztezulo, Zugatik Gugatik, UEMA, Galtzaundi eta Txiribitu. Hala ere, lantalde irekia dela azpimarratu dute, eta herriko edozein eragile animatu dute bertan parte hartzera.

Koordinaziorako eta elkargunerako gune izatea lortu nahi dute, eta dagoeneko datorren ikasturterako erronka berriak adostu dituzte. Hala, herri mailan, ertz eta maila desberdinetatik hezkidetzak lantzeko erabakia hartu dute eta horretarako plangintza partekatu bat osatzen ari dira. Hala, Eihera elkartearekin harremanetan jarri direla konta-

tu du Urrestarazuk. «Hezkidetzan adituak dira eta eragile bakoitzak identifikatuko du bere etxean zein gai gustatuko litzaiokeen modu koordinatu batean lantzea».

Hurrengo ikasturtean zehar, gainera, hiru hilabeteko elkartze-ko asmoa dute, «eragile bakoitza bere egitasmoa aurrera eramaten joateko eta, bilera horietan bakoitza zertan ari den lantzen joango dira, hezkidetzak gaiaren inguruan zein den lanketa zehatza jakiteko eta denok elkarren artean harremanetan egoteko, modu koordinatuta batean inertziak sortu daitezkeen herriko hezkuntza eragile desberdinen artean». Hala ere, su motelean egingo den egitasmoa izango dela aipatu dute, «denen erritmoak errespetatuz».

Saralegi eta Regillaga judokak, txapelaldunorde Espainiakoan

Nage No Kata modalitateko Espainiako Txapelketa izan da jokoan eta Judo Klub Tolosako hiru bikotek parte hartu dute, bik seniorretan eta batek kadete mailan

Erredakzioa Tolosa

Judo Klub Tolosako hiru bikote izan dira asteburuan Nage No Kata modalitateko Espainiako Txapelketan, Villaviciosa de Odonen (Espainia). Senior mailan Unai Saralegi eta Unai Regillaga txapelaldunorde izatea lortu dute. Espainiako Txapelketa Europako Txapelketa egin eta gero izatea ez da ohikoa, eta denboraldi hasieran ez zegoen horrela planifikatua, baina aurreko horrela tokatu dela azaldu dute klubetik.

Senior mailan Saralegi eta Regillagaz gain, Joseba Regillagaz eta Joseba Etxarrik osatutako bikotea aritu da. Saralegi eta Regillaga iaz txapelaldunak izan ziren, baina aurtengoa ezin izan dute mantendu, bigarren eginez. «Duela bi aste Europako Txapelketan ez bezala Extremadurako bikotearen atzetik geratu gara, berriro ere argi geratuz bi bikotek oso pareko gaudela eta xehe-



Judo Klub Tolosako kideak, Espainiako Txapelketan. ATARIA

tasun txikietan erabakitzen dela», esan du Saralegi.

Bere aldetik, Regillaga eta Etxarri Europako Txapelketako sentsazio gazi-gozoak kentzeko gogoz aurkeztu ziren. Lehen aldian zuten senior mailan, baina erakutsitako mailarekin podiumera igotzea zen asmoa. «Lan dotorea egiten ari ziren eta hirugarren postua lortzekotan zeu-

dela, azken mugimenduan akats potolo bat egin zuten eta ohorezko postuetatik kanpo geratu ziren. Horrelako akatsak onenei ere gerta dakizkieke eta ikaste prozesuaren parte dira», azaldu dute klubetik.

Markel Jaka eta Xuban Urkizar kadete kategorian lehiatu ziren, eta beren estreinako aldian izan zen Espainiako Txapelke-

tan. «Gipuzkoako Txapelketan bigarren postua lortu eta gero gogotsu zeuden horrelako txapelketa batean parte hartzeko. Azken asteetan gogor egin dute lan eta euren helburua ikastea eta lan txukun bat egitea zen», esan dute klubetik. Euren kategorian 26 bikote ziren eta lehen postuan irtetea tokatu zitzairen. Momentu batzuetan ohorezko postuetan egon baziren ere azkenean postu batzuk atzera egin zuten, zazpigarren amaituz. «Lan txukuna egin zuten eta erakutsi dute lanean jarraituz gero datorren urtean podiumerako bidean egon daitezkeela», diote klubetik.

Senior mailakoek orain atsedent txiki bat egiteko unea izango dute eta hurrengo helburua irailan, Madrilan, leku berean jokoan izango den European Kata Tournament izango da. Horrekin Las Vegasen azaroan izango den Munduko Txapelketarako prestaketa hasiko dute.

John Cabang, bosgarren postuan Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Absolutu mailako Espainiako Atletismo Txapelketa izan da jokoan pasa den asteburuan, eta John Cabang irurarrak bosgarren postua lortu zuen 110 metro hesietan. Realeko atletak 13,78ko marka egin zuen. Ander Martinez de Rituerto tolosarrak, Realekoa ere, pertikan parte hartu zuen, eta 5 metroko langa pasa ahal izan zuen lehenengoan, baina 5,15 metrokoan egindako hiru saiakerak baliogabeak izan ziren, 11. postuan geratuz.

Txapelketan izan dira baita ere, Tolosa CF-ko hiru atleta. «Bertan izate hutsa arrakasta da. Halere, ez zuten amestutako asteburua izan», zehaztu dute klubetik. Maria Felisa Okomo tolosarra pisuan aritu zen eta 13,22 metro jaurtiz 12. sailkatu zen. Ainhoa Gibelalde tolosarrak 100 metro hesiak egin zituen 14,66ko markarekin bere kanporaketan 7. sailkatuz. Ane Martinek 800 metrotako lasterketan parte hartu zuen, eta 2.13,83ko marka egin ondoren tolosarrak bere kanporaketan 7. postua eskuratu zuen.

Laskorainek eta Tolosalak bat egin dute

Gizonezkoen areto futboleko hirugarren mailako Tolosako bi taldeak elkartu egin dira, eta Tolosala izenarekin ariko dira hurrengo denboraldian lehiatzen maila horretan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Hurrengo denboraldian ez da gizonezkoen areto futboleko Tolosako derbirik izango hirugarren mailan. Laskorain eta Tolosala klubak talde bakarrarekin lehiatuko dira. Laskorainek bere plazari uko egin dio eta, beraz, Tolosala izenarekin ariko da lehian talde berria. Aurreko denboraldian Laskorain 2. B mailatik hirugarren mailara jaitsi zen, eta bertan izan da azken urteotan Tolosala, azken denboraldi honetan lehen postuetan izanik. Orain bi denboraldi derbiak ere jokatu zituzten bi taldeek hirugarren mailan.

Laskorain klubeko Iñigo Gonzalez azaldu duenez, «gai hau urte dezentetan hitz egin izan

dugu modu informal batean. Nabarmena izan da bai Laskorainek eta bai Tolosalak lortutako emaitzak, bakoitza bere bidetik, eta ikusten zen zein izango zen hemendik aurrera gure kirolaren egoera. Talde asko daude, baina maila batetik aurrera ez daude hainbeste. Emakumezkoen areto futbola ere nahiko kili-kolo dabil, eta ikusten genuen areto futboleko paradigma aldaketa bat izan zitekeela. Hitz egiten hasi ginen zer egin genezakeen eta honetara iritsi gara».

Tolosala klubeko Antton Garrok gaineratu duenez, «ikusten zen urte hauetan areto futboleko beste talde batzuk ere iritsi direla, baina gero iristen da momentu bat jokalaria lehiatzeari utzi nahi diola, edo beste modu bate-

ra bizi nahi duela lehiaketa maila horretan. Hor irauteko erraztasuna izateko eta herri mailan talde sendo bat sortu ahal izateko, ikusi genuen bide zuzenena izango litzatekeela goran gabiltzan taldeak elkartu eta elkarren artean talde hori bideratzea».

Talde berria sortzeko kideetza edo filiazio hitzarmen bat egin dute bi klubaren artean. Ez dute aukerarik izan izen berri bat sortzeko taldearentzako, epean aldetik justu ibili direlako, eta horregatik Tolosala izenarekin ariko da talde berria datorren denboraldian. Hain justu, inguruan izen berri posibleen inguruko interes handia jaso dute. Garbi dagoena da talde nagusiaren kantxa Usabal kiroldegia

izango dela, eta bertan entrenatuko dute.

Datorren denboraldiaren helburuei dagokionez, 2. B mailara igotzea izango du helburu Tolosako taldeak. «Oinak lurrean izan behar ditugu, baina bi taldeetako jokalariek elkar ezagutzen dute, batzuk jokatu izan dute elkarrekin, eta 2. B mailara igotzeko helburu hori izatea zilegi da», esan du Gonzalezek, eta Garrok gaineratu: «Laskorainek hainbat urtetan erakutsi du 2. B mailan lehiatu egin duela, eta Tolosalakoek pauso handi bat eman dute azken urteotan. Beraien artean ondo ezagutzen dute elkar, eta bai izan behar duela helburua igoerarengatik borrokatzea. Horretarako taldea izango da».

Martxan jarri duten proiektu

honen helburuetako bat bi klubek bat egitea da senior mailan, baina oraingoz talde nagusian bateratu dira. Oraindik ez dago osatuta klub berri bat, eta, beraz, datorren denboraldiari begira senior mailan bakoitzak bere klub eta taldeen izenen bitartez funtzionatzen jarraituko du.

Taldeei dagokionez, gizonezkoetan Laskorain egituraren datorren denboraldian bi talde izango lirateke kadete mailan, infantil taldea, jubenilen taldea eta seniorretan Gipuzkoako mailan bakarra izango da, lehen mailan. Tolosalan, areto eskolaz aparte infantiletako maila mantenduko dute. Seniorretan Gipuzkoa mailan bigarren mailan talde bat izango dute eta agian hirugarren mailan beste bat. Emakumezkoen senior taldea badu Tolosalak gaur egun, baina irail inguruan ikusi beharko da liga osatzeko aukera izango den.



ASTEAZKENA, 2024KO UZTAILAK 3
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEAZKENA 03

AGENDA

Deialdiak

Elduain. Kale-fit, indarra lantzeko entrenamendua. 18 urtetik gorakoentzat. Doan, 17:30ean.

Antzerkia

Tolosa. Amaroeko Antzerki Astea: Puy Osés-en *Andrina Basandrina* kaleikuskizuna. Denontzat, euskaraz, 17:00etan. Intxurre antzerki taldearen *Jo ezak berriro, Sam!*. Helduentzat, euskaraz, 20:00etan, Auzo-etxean..

Erakusketak

Tolosa. *Errege-makina*, Topic-en.
Tolosa. Jose Mari Razkinen *Itzalaren goraiapmena*, 3 tabernan.
Ibarra. Kultur etxeko kultur lantegietako lanen erakusketa.
Tolosa. Kultur etxeko tallerretan egindako lanak Aranburu jauregian.
Tolosa. Eva Mena eta Den_XL artisten *Futuro* erakusketa, Gko galleryn.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Hitzez Hitz. Galtzaundi.
12:30. Pasahitza.
18:00. Desafioa. Herri kirolak.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza. Imanol Artola Felix.

28 KANALA

10:00. Solstizioa kontzertua.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
16:00. Harri Salda.
19:00. Elkarriketap - Ines Itsaso.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Haritik tiraka.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Laramendi 6 behe, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ederra. Goizean hodei baxu batzuk agertuko dira, baina ez dute inolako ondorioz ekarriko. Goiz erditik aurrera ostarteak gailentzen joango dira eta arratsaldean zehar giro eguzkitsua jaun eta jabe izango da. Goizean haize aldakorra ibiliko da, arratsaldean iparraldetik finkatuz. Tenperaturak gora egingo du, 21-23 graduan joz goia egunaren erdiko orduetan.

Bihar. Giro motelagoa. Goizean zehar hodeiak areagotzen joango dira eta zerua nahiko estalirik utziko dute, joera horrek egun guztian jarraipena izango duelarik eta giro triste xamarra nagusituko delarik. Ez da baztertzeko hodei hauek puntualki euri langar pixka bat uztea. Iparraldeko haizea nagusituko da eta tenperatura antzeko kokatuko da, 21-23 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eraso homofoboa jasan duen herritarrari babesa

Anoetar batek eraso homofoboa jasan zuen iragan ostiralean Bilbon, eta elkarretaratzea egin dute gaitzespena azaltzeko



Elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Anoetan, eraso homofoboa jasan duen herritarrari babesa adierazteko. J.M.

Jon Miranda Anoeta

Herritar ugari bat egin zuten atzo Anoetako Udalak eta Adi eta So! mahaiak herriko plazan deitutako elkarretaratzearekin. Bilbon anoetar batek ekainaren 28an jasandako eraso homofoboaren gaitzespena egin zuten bildutakoek.

Anoetako Udalak eta Adi eta So! mahaiak gertaeren berri jaso eta informazioa egiaztatu eta kontrastatu ondoren aktibatu zuten erantzun publikoa emateko protokolo instituzionala, «informazioa baloratzeko eta beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko eta erasotuari eta bere gertukoei arreta egokia emateko». Horrela, LGTBI+ kolektiboren eskubideak urratzen dituz-

ten erasoak ez dituztela onartzen adierazi dute eta bestetik atzo arratsaldean egin zuten elkarretaratzea deitu zuten, indarkeria homofoboaren aurka herritarrek gaitzespena adierazi zezaten.

«Indarkeria hori gizartean errotuta dauden aurreiritzien ondorioa da, eta ohiko estereotipoetatik kanpo dagoen joera oro baztertzeko du. Guztion artean bilatu behar diogu irtenbidea gure bizikidetzaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honi», esan zuten elkarretaratzearen amaieran.

Atzoko protesta ekitaldia bukatzerakoan deitzaileek esan zuten ez dutela atsedetik hartuko pertsona guztiok eskubide guztien jabe garela bermatu arte,

edozein dela ere norberaren aukera sexuala. «Erasoa jasan duen herritarrak guztion laguntasuna sentitu behar du. Guztien erantzukizuna eta ardura da eraso hauei aurre egitea, gure gaitzespen irmoena adieraztea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea ez dugula horrelako jarrerarik onartuko inola ere».

«INDARTSUAGO EGITEN GAITU»

Biktimaren familiak elkarretaratzearen amaieran hitz egin zuten, eta jasotako babesa eskertu zuten: «Une gogorak, zailak eta esplikaz ezinak dira, baina hemen gurekin zaudetela sentitzeak eta denok elkarrekin arrazoirik gabeko eraso hauen aurka borrokatzen dugula sentitzeak indartsu egiten gaitu».

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

17€
35€
51€
56€

Atarikideak

13€
25€
36€
42€

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez